

Alice in Wonderland obraren itzulpen-unibertso miresgarria

JOSE MANUEL LÓPEZ GASENI
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Sarrera

Joan den urtean, 2015ean, Lewis Carroll-en *Alice in Wonderland* (1865) obraren jatorrizko edizioaren 150. urteurrena bete zen. Horren harira, ospakizun ugari egin ziren mundu osoan. Esaterako, Erresuma Batuan, erakusketa eta obraren antzezpen berri bana antolatu ziren, Londresen; eta era askotako jarduerak Bath, Oxford, Clapham, Guildford, Kingston eta beste hiri askotan; Estatu Batuetan ere, ospakizun asko egin ziren New York, Texas, Dayton, San Francisco eta beste toki askotan; horretaz gain, hitzaldi, erakusketa, performance eta beste ekintza anitz egin ziren Brasilen, Errusian, Argentinan, Japonian, Portugalen... Carrollen obra unibertsoala askotariko ikuspuntutatik aztertzen duten liburu eta artikulu asko ere argitaratu dira, eta liburuaren edizio berriak ere plaza-ratu dira, nonahi, baita Euskal Herrian ere.

Hitz gutxitan, esan daiteke *Alice in Wonderland* obrarekiko interesa eta jakin-mina indar handiz berpiztu direla.

Obraren historia

Beste toki batzuetan azaldu dudana bezala (López, 2015), *Alice's Adventures in Wonderland* testu kanonikoaren jatorria Carroll-ek Alice Liddell-i 1862ko Gabonetan oparitu zion eskuizkribuan dago, urte hartako uztailaren 4an txalupa-txango batean Carroll-ek Alice-ri eta haren bi ahizpei kontatutako istorioa jasotzen baitzuen, *Alice's Adventures Underground* izenekoa.

Testu hori irakurri zuten zenbait lagunek bultzatuta, Carroll-ek argitalpen komertziala egitea erabaki zuen. Hala ere, edizio berriari begira, hainbat aldaketa garrantzitsu egin zituen jatorrizko testu hartan: aipamen pribatu batzuk kendu, eta testuaren

luzera bikoiztu zuen. Konplexutasuna eta anbiguotasuna ematen zioten elementuak ere erantsi zituen; «Eroen arteko merienda» kapitulu famatua, besteak beste. Testu-illustrazio berriak 1865ean prest zeudelarik, Carroll-ek udan plazaratu nahi izan omen zuen, Liddell ahizpekin egindako txango haren hirugarren urtemugan. Edizioa, ordea, ez zen Sir John Tenniel irudigilearen gustukoa izan, marrazkien inprimaketa txarra zela medio, eta banatutako liburuak itzularazi zituen (gero, argitaldaria, edizio akastuna Estatu Batuetara bidali, eta han jarri zuen salgai). Tenniel-en onespina jaso zuen argitalpena urte bereko abenduan plazaratu zen, azkenean.

Liburuak berehalako eta berealdiko arakasta izan zuen, haurren zein helduen artean: bi urtean, hamahiru mila ale saldu ziren, eta Carroll-i izugarritzko ospea eman zion.

Handik urte batzuetara, Carroll-ek istorioaren jarraipena idatzi zuen, eta 1872an argitaratu: *Through the Looking-Glass, and What Alice Found There*. Bigarren atal horretan, ispilua zeharkatzearekin batera, dena-alderantziz-gertatzen-den-munduan sartzen da Alice. Abenturak, oraingoan, xake-partida bateko piezekin gertatzen dira nagusiki (aurreko istorioko antagonista karta-sortako Erregina Bihotza zen). Hala ere, Carroll-ek ez bide zuen egin nahi izan inolako aipamen erlijiosorik, eta begiramen osoz jokatu zuen bere testuetan. Antza denez, horrexegatik agertzen dira bigarren liburu horretan xakeko pieza guztiak alfila izan ezik (ingelesez, *bishop*).

Azkenik, *herrialde miresgarriko abenturak* klasiko bihurtu zirela ikusirik, handik urte batzuetara, haur txikientzako egokitzapen bat egitea pentsatzen hasi zen Carroll. Hala agertzen da jasota idazlearen egunkarian 1885eko martxoaren 29an, beste egitasmo askoren artean: «*Alizia haurrentzat*, zeinarentzat Tenniel jauna hogeitau irudi koloretzatzen ari den». Asmoa, funtsean, bertsio kanonikoaren egokitzapen erraztua egitea zen, «0 eta 5 urte bitarteko haurrentzat», formatu handiagoan eta koloretako irudiez lagunduta. Azkenean, *The Nursery Alice* argitaratu zen, 1889an, Carroll-ek 57 urte zituela.

Harrera eta kanonikotasunaren arrazoiak

Zenbait eredu narratibo konbinatzearen bidez haurrentzat zein irakurle helduentzat erakargarri egitea da *Alice in Wonderland* obraren arrakastaren giltza. Honela azaltzen du Zohar Shavit ikertzaileak (1986: 66):

Texts that synchronically (yet dynamically, not statically) maintain an ambivalent status in the literary polysystem. These texts belong simultaneously to more than one system and consequently are read differently (though concurrently), by at least two groups of readers. Those groups of readers diverge in their expectations, as well as in their norms and habits of reading. Hence their realization of the same text will be greatly different.

Horrelako testu anbibalenteak sortzeko, gutxienez bi eredu narratibo konbinatu behar dira: bata, ohikoa, haurra erakartzeko baliatzen dena; bestea, berriz, sofistikatua-goa, eta askotan parodiatua agertzen dena,

irakurle helduak erakartzeko (Shavit, 1986: 68). Hizpide dugun egileak horretarako erabiltzen duen adibideetariko bat, hain zuzen ere, Carroll-en *Alice in Wonderland* da, baliabide zuhur horiek tarteko testu kanoniko bihurtuta (Shavit, 1986: 80):

Historically, it is not its position as a totally new and previously unknown model that makes the text a *masterpiece* or warrants its consideration as a *turning point*, but rather it is the manipulation of models already existing in the system that earns status for the text (...) In the case of Alice, it was the ambivalent character of the text that liberated Carroll from the limitations imposed on children's literature (particularly on children's fantasy) and gave him the freedom to produce a text based on a different model of fantasy.

Hala, Carroll-en idazlanean, garaiko literaturako hiru eredu konbinatzen dira. Haietariko bi, haur-literaturatik hartuak dira: abentura-kontakizuna eta fantasia. Bi eredu horiei eredu sofistikatuagoa erantsi zien: *nonsense* delakoa, 1846az geroztik E. Lear-ek famatua *Book of Nonsense* obraren bitartez. Gainera, Carroll-ek esplizituki jo zuen ordura arteko haur-literaturan nahitaezkoa zen moraltasunaren aurka, alderdi hori jorratzen zuten hainbat poema parodiatuz. Ume irakurleek ez zuten inolako arazorik lehen bi eredu araberako istorioa ulertu eta onartzeko, eta, gainera, barre egiten zuten buruz hain ondo ikasitako poemak parodiatuta ikustean. Helduek, berriz, eraikuntzaren konplexutasuna atsegin zuten, eta moraltasun eza baimentzen.

Bestalde, fantasiaren eta abenturaren arteko konbinaketan, anbiguotasunari eus-

ten dio Carroll-ek. Errealitatearen eta fantasiaren arteko mugak lausotu egiten ditu. Hasierako pasartean, adibidez, untxi zuria ikusten duenean, Alice nekatuta eta erdi-lo dago, baina ez guztiz loak hartuta (Alice-ri berari ere bitxia iruditzen zaio halako untxi zuri bat ikusi izana). Gauzak areago lausotzeko, amaieran ere ez dago garbi gertatutakoa amets baten ondorioa izan den ala ez; aitzitik, Alice-ren ahizpak berriro amesten du istorio osoa, eta haren egiazkotasuna azpimarratzen. Teknika sofistikatu horren bidez, Carroll-ek ezbaian jartzen du ametsaren eta errealitatearen arteko aldea. Shavit-en hitzetan (1986: 85):

If a dream can be dreamed about, as if it were real, conversely, reality can be described as if it were a dream. The two dimensions exist equally and are equally *real*.

Horrelako konplexutasunez jabetuta, helduek ere onartu ez ezik, biziki txalotu zuten *Alice in Wonderland*, eta kanonikotasun-mailara igo.

Esan gabe doa, konplexutasun horiek gehienak desagertu egin ziren *The Nursery Alice* ume txiki-txikientzako egokitzapean...

Obraren itzulpenen azterketak

Alice's Adventures in Wonderland obraren itzulpenen lehen azterketa nagusia Warren Weaver (1894-1978) itzulpen automatikoaren aitzindariaren eskutik etorri zen. *Alice in Many Tongues* liburuan (1964), 47 hizkuntzatarako itzulpenak dokumentatu eta aztertzen ditu, tokian tokiko kolaboratzaiz-

leen laguntzaz. Lehen kapituluetan egileari eta obrari buruzko hainbat datu eskaini ondoren, *itzulpen goiztiarrak* hartzen ditu hizpide 4. kapituluan, hau da, Carroll bizi zela argitaratu zirenak: alemana, frantsesa, suediarra, italiarra, nederlandarra, danimarkarra eta errusiarra. Hurrengo kapituluan («The flood of translations»), berriz, gaine-rako itzulpenen berri ematen du Weaver-ek. Honaino, liburuaren itzulpenen historia.

Seigarren kapitulua da, zalantzarik gabe, Weaver-en liburuko interesgarriena. «How can *Alice* be translated» titulupean, obraren ezaugarri jakin batzuk aztertzea proposatzen du: hitz-jokoak, *nonsensea* edo zentzugabea bideratzeko hitzak, logikak gidatutako txisteak, eta *twists of meaning* edo esanahi bihurrituak. Horretarako, azterbide bitxi bat ere proposatzen du: 7. kapituluko («A mad tea-party») pasarte bat aztertzea, aurreko ezaugarriak biltzen baititu, nola eta *back-translations* edo atzeraitzulpenen bidez. Weaver-en kolaboratzaileek pasarte hori ingeleseratu egin behar zuten nork bere hizkuntzatik, literalki eta jatorrizko testuari begiratu gabe. Horixe da hamalau kolaboratzailek beste hainbeste hizkuntzatatik egin zuten lana, Weaver-ek bere azterketarako oinarri gisa erabili zuena. Hauek izan ziren aztertutako hamalau itzulpenak: alemana, frantsesa, suediarra, italiarra, daniarra, errusiarra, japoniarra, txinatarra, hebrearra, hungariarra, espainiarra (gaztelaniaz, zehazten du), poloniarra, pidgin delakoa eta swahilia. Hurrena, arestian aipatutako ezaugarriak itzulpen haietariko bakoitzean nola eman ziren aztertu eta itzulpen egokia izan zen ala ez (eta zergatik) adierazten du Weaver-ek. Bistan denez, aplikatutako azterbidea guztiz

preskriptiboa izan zen; itzulpenak nolakoa izan behar duen aurreiritzitik abiatua, alegia. Gainera, atzeraitzulpenaren metodologia, berez makina bidezko itzulpengintza lantzeko sortua, guztiz anglozentrista da, eta (kalitatea bermatu gabeko) bigarren eskuko testuak baliatzen ditu azterketarako.

Weaver-enaren tamainako hurrengo azterketa 2015ean argitaratu zen, hiru liburukitan, Jon Lindseth-en eta Alan Tannenbaum-en zuzendaritzapean: *Alice in a World of Wonderlands. The Translations of Lewis Carroll's Masterpiece*. Azterketa horrek Weaver-ena aitortzen du, iturri gisa ez ezik, metodologiaren aldetik ere. Izan ere, hartan erabilitako atzeraitzulpenen bidezko prozedurari eusten dio, baina askoz ere corpus zabalago bat erabiliz: 174 hizkuntza aztertzen ditu; haien artean, eskozieraren bederatzia dialekto, sei hizkuntza zelta, Espainiako zazpi hizkuntza (gotikoa barne), Pazifikoko bost uhartetako hizkuntzak, Indiako hamabi hizkuntza, Afrikako zortzi hizkuntza, hainbat hizkuntza ez-natural edo asmatuak (Blissymbols, esperantoa, Lingua franca nova, Lingwa de Planeta, Lojban, Neo, Sambahsa eta Volapük), eta abar. Guztira, 2.600 orrialde baino gehiagoko lana da.

Lehen liburukian, itzulpenen deskribapen eta azterketak biltzen dira, tokian tokiko adituek eginak. Bigarrean, atzeraitzulpen guztiak jasotzen dira, baina ez da haien interpretaziorik egiten; izan ere, itzulpen-estudioen perspektiba asko aldatu da, eta, gaur egun, azterketa deskriptiboak hobesten dira. Hirugarren liburukian, azkenik, 9.000tik gorako edizio eta berrinprimaketa dokumentatzen dira.

Manipulazio berezi baten historia

Aurreko obretan aztertutako itzulpenetako estrategien artean, ezabaketa da nagusi, hau da, zailtasunik eskaintzen duten testu-segmentuak besterik gabe ezabatzea —noiz poemak, noiz hitz-jokoak, noiz kapitulu osoren bat—. Horrexegatik gertatzen da deigarria kontrako kasua, gehiketa; areago, kapitulu oso bat gehitzen denean, pertsonaia berriak eta guzti. Horixe da jarraian laburtuko dugun itzulpenaren historia.

López Guix-ek azaltzen duenez (2016), Bartzelonako Mateu argitaletxeak itzulpen berezi bat plazaratu zuen, 1952an. Itzul-tzailea Rafael Ballester Escalas (1916-1993) izan zen, Bartzelonako Unibertsitateko historia-irakasle bat; eta irudigilea, Salvador Fariñas. Itzulpena ez da egokitzapen bat, itzulpen zehatz eta ondo eramán bat baizik. Gaztelaniaz argitaratutako bigarren itzulpen osoa da (lehen Juan Gutiérrez Gili itzul-tzailearena izan zen, 1927an argitaratua). Hala ere, une jakin batean, jatorrizkoaren 5. eta 6. kapituluaren artean, 6. kapitulu aizun bat tartekatu zuen: «Historia de un perfecto Caballo». Zaldi dotore ongi hezi baten inguruko atala da, non, hain zuzen ere, Eton-en jasotako heziketa onaz harrotzen baita zaldia. Izan ere, kapituluaren garrantziaz ari da; betiere, Carroll-en tonu jostariari jarraikiz, eta uneoro jatorrizkoaren itzulpena delako itxurak eginez. Ikasitako irakasgaietarikoa bat «Fonética superior» delakoa da:

—¿Y qué es eso de fonética superior?
—preguntó Alicia, con la boca abierta.

—Es la ciencia relacionada con las palabras «queso», «Cheedwick», «Keats»

y «keen», que son las palabras que más le cuesta pronunciar a un caballo.

—Pues usted las pronuncia correctamente —dijo Alicia.

—La primera vez, sí —dijo el Caballo—. Pero cuando pruebo dos veces seguidas, sobre todo en la palabra «Cheedwick», se me escapa un estrepitoso relincho.

Eton-go zaldi xebreak ikasitako beste irakasgai bat, kapituluaren amaiera aldean aipatzen dena, «Musica afónica» da:

—¿La música afónica? ¡Oh! Éste es un capítulo muy interesante de nuestras enseñanzas. Has de saber que la música afónica que nosotros aprendemos es una música sin sonidos, o mejor dicho, haciendo caso omiso de ellos, como si no existieran.

—Entonces, si su música no tiene sonidos, ¿qué queda de ella?

—El ritmo, es decir, el compás. El compás es lo más interesante de todo.

Rafael Ballester-en itzulpenak eragin handia izan zuen gaztelaniaren eremuan (Espainian ez ezik, Hegoamerikan ere), Aliziaren harreraren aldetik; izan ere, hogeita hamabi edizio eta laurogeita sei berrinprimaketa izan zituen, lehen aldiz argitaratu zenetik XX. mendearen amaiera arte.

Kapitulu berriaren jatorriari buruz López Guix-ek emandako aukeren artean, batetik, Jonathan Swift-en *Gulliver's travels* obrako laugarren kapituluaren agertzen diren Houyhnhnms zaldi jakintsuak aipatzen dira lehenbizi; hala ere, Ballester Shakespeare-ren zale handia zela jakinik, beste hipotesi baten alde egiten du: *Henry V* antzezlanean (Ballester-ek berak 1952. urtean berean itzuli eta argitaratua), garaipena Ingalaterrari emango zion guduaren aurreko gauean,

Frantziako delfinaren, Orleans-eko dukearen eta Frantziako kondestablearen arteko elkarriketan aipatzen den zaldi dotore bat, *Alicia en el país de las maravillas* itzulpeneko ezaugarri berberak dituena.

Carroll-en obraren euskal bertsioak

Aliziak euskaraz egin duen ibilbideari dagokionez, hamar bertsio dokumentatu dira. Gehienak Carroll-en obraren bertsio laburtuak dira. Lehena, *Alizia gauza miragarrien munduan* (ca. 1968), 12 orrialdekoa, Imanol Berriatuak euskaratu zuen, bizkaieraz; hurrengoa, *Alizia* (1974), Jose Mari Satrustegiren eskutik etorri zen: Abadia de Montserrat argitaletxeko komiki bat; hirugarrena, *Alizia herrialde harrigarrian* (1979), Cruz Mujikak egin zuen, Hordago argitaletxeko Tximista sailean; hurrengo urtean, 16 orrialdeko liburuxka bat argitaratu zen, itzultzailearen izenik gabe: *Alizia herrialde miresgarrian* (1980). Obraren lehen bertsio osoa 1989an argitaratu zen, Pamielan: *Aliceren abenturak lurralde miresgarrian*, Manu López Gasenik euskaratua, eta itzulpen horrek beste edizio bat izan zuen, 1992an, *Isbiluan barrena eta Alicek han aurkitu zuena* bigarren partearekin batera. *Alizia herrialde harrigarrian* (1991), 46 orrialdeko komikia, Joseba Berriotxoak sinatuta argitaratu zen. Hiria argitaletxeak *Alizia lurralde harrigarrian* (2000) plazaratu zuen, 1979ko edizioaren testu berarekin. *Alizia lurralde miresgarrian* EITBk egindako animazio film bat da (2003), 49 minutukoa. Azkenik, *Aliziaren abenturak herrialde miresgarrian* (2015) euskarazko bigarren itzulpen osoa

da, López Gasenik berriz ere Pamielan argitaratua.

Aliziaren abenturak herrialde miresgarrian (2015) itzulpenaren ezaugarriak

Esana dago 1989ko itzulpena dezente *arroztua* izan zela; Toury-ren terminologia erabiliz (1980), egokitzapenaren muturrean kokatua zegoen, eta, horrenbestez, sorburu-testuaren ezaugarri guztiak moldaketa handirik gabe agertzen ziren euskal itzulpenean. Horrek testu zaila eragin zuen irakurlearen begietara, nahiz eta tarteka azalpenen bat ematen zen, oin-oharren bidez.

Haren aldean, 2015eko itzulpena askoz funtzionalagoa egin nahi izan zen, orekatuagoa. Helburu horrekin, baliabide lexiko, sintaktiko eta kultural komunikatiboagoak erabili ziren, jatorrizko testuaren konplexutasunak saihestu gabe.

Adibidez, izenek euskal forma hartu zuten: Alizia (Alice), Mixa (Dinah), Sandi (Bill), Maritxu (Mary)... Bestelako egokitzapenak ere egin ziren; esaterako, «A caucus-race and a long tale» kapituluaren izena «Lasterketa eroa eta buztan-ipuina luzea» bihurtu zen, eta «A mad tea-party» kapituluarena, berriz, «Erotozko moduko askaria».

Hain zuzen ere, malko-putzuan busti-busti egin eta gero, lasterketa eroko pertsonaiek *lehorgarri* gisa erabiltzen duten historia-irakasgaia ere egokitu zen. Jatorrizkoan normandiarren inbasioari buruzko pasartea zena etxekotu egin zen, eta musulmanak Nafarroan ibili ziren garaiko kontakizun batek ordeztu zuen.

Hala eta guztiz ere, esku-hartzerik nabarmenenak poema eta kanta parodiatuetan egin ziren. Hona hemen egindako aldaketan zerrenda.

Bigarren kapituluko *How doth the little crocodile* poeman, Aliziari hitzak ez zaizkio behar bezala ateratzen, eta, euskal bertsiarako, *Hegoak ebaki banizkio* kantuaren bertsi aldrebes samarra paratu zen. Bosgarren kapituluan, berriz, *You are old, Father William* poema didaktikoak eta beraren parodiak aitaren eta semearen arteko elkarrizketa dute ardatz. Horren ordez, *Haika mutil* abestiko elkarrizketa parodiatua jarri zen. Seigarren kapituluan, hainbat pertsonaia sukaldean dabilzala, Dukesak sehaskakantu bat abesten dio kumeari. Jatorrizko poemak *Goxotasunez mintza zaitezte* zuen izena, baina Dukesak kontrakoa egiten du kantuaren parodian. 2015eko itzulpenean, *Haurtxo polita* sehaska-kanta ezaguna parodiatu zen. Zazpigarren kapituluan, Kapelagileak *Twinkle, twinkle, little star* aipatzen du. Erreginak eskainitako kontzertu batean kantatu behar zuen, baina oso gaizki atera zitzaion, eta erregina izugarri haserretu zitzaion. Oraingoan, *Hator, hator* kantaren bertsi aldatua erabili zen. Hamargarren kapituluan, *Otarrain-dantza* beste kantu baten konpasean egiten da. Carroll-ek armiarma-

ren eta euliaren arteko elkarrizketa gai duen kanta bat parodiatzen du, merlenkaren eta barraskiloaren artekoa bihurtuz. López Gaseniren bertsiotan, Marijane Minaberry-ren *Xerri Kuttin* otsoaren eta txerriaren arteko elkarrizketa darabilen poemarekin Oskorrik egin zuen bertsiota egokitu zen itsas egoera horretara. Kapitulu horretan bertan, nagitasunari buruzko poema bat parodiatzen da, otarrainari buruz mintzatzeko, eta, hizpide dugun itzulpenean, *Gero Axularren obraren* titulu luzea erabili zen, helburu berarekin. Azkenik, hamabigarren kapituluan, ize-nordain pertsonal ugari erabiltzen dituen poema nahasgarri bat irakurtzen du Untxi Zuriak, eta, hori ordeztzeko, Carroll-en poemaren antzeko bat egin zen, *Xarmagarria zara, eder eta gazte* poema herrikoia lehena ahapalditik abiatuta.

Amaitzeko

Honaino, Lewis Carroll-en idazlan ezagunenaren inguruko hainbat jakingarri eta pasadizo. Esan bezala, 150. urteurrenak aukera bikaina eskaini du Aliziaren mundu miresgarrian areago sakontzeko eta obraren beraren garrantzia eta gaurkotasuna azpimarratzeko, literatura unibertsalaren klasiko handi bat den aldetik.

BIBLIOGRAFIA

- Lindseth, J. eta Tannenbaum, A. (ed.) (2015). *Alice in a World of Wonderlands. The Translations of Lewis Carroll's Masterpiece* (3 liburuki). New Castle, Delaware: Oak Knoll Press.
- López Gaseni, M. (2015). «Gibel solasa», in Carroll, Lewis. *Alizia herrialde miregarrian*. Iruñea: Pamiela.
- López Guix, G. (2015). «La traducción cuántica: Alicia en el país de las maravillas», *Vasos comunicantes*, 46, 9-18.
- (2016). «De Azincourt a Eton y más allá: la *Alicia en el país de las maravillas* de Rafael Ballester Escalas y sus secuelas», *Pasavento. Revista de estudios hispánicos*, III, 2.
- Shavit, Z. (1986). *Poetics of Children's Literature*. Athens/London: The University of Georgia Press.
- Toury, G. (1980). *In Search of a Theory of Translation*. Tel Aviv: Tel Aviv University.
- Weaver, W. (1964). *Alice in Many Tongues. The Translations of Alice in Wonderland*. Madison: The University of Wisconsin Press.

Resumen

Tomando como excusa la reciente celebración del 150 aniversario de la publicación de *Alice in Wonderland*, se hace un repaso de la historia de la obra y su recepción, así como de las características que la convirtieron en un texto canónico. En segundo lugar, se realiza una revisión bibliográfica de los principales estudios comparativos de las traducciones de la obra de Lewis Carroll a otras lenguas de todo el mundo. Como muestra de una de las muchas *manipulaciones* efectuadas, se relata el caso de la inclusión de un capítulo apócrifo en una de las versiones españolas. Por último, se recogen las versiones en lengua vasca de la obra y se detallan las características de la última traducción al euskera, publicada en 2015.

Résumé

Profitant du 150^e anniversaire de la publication d'*Alice in Wonderland* qui a eu lieu l'année dernière, l'auteur de cet article nous rappelle l'histoire de cette œuvre de Lewis Carroll, de l'accueil qu'elle a eu, ainsi que des caractéristiques qui on fait d'elle un texte canonique. Il nous offre ensuite une révision bibliographique des principales études comparatives des traductions de cet ouvrage en d'autres langues. L'auteur nous rappelle également que ce texte a subi de multiples *manipulations* et il apporte comme preuve l'inclusion d'un chapitre apocryphe dans l'une des versions espagnoles. Pour finir, il nous informe des différentes versions de cette œuvre en langue basque et il nous décrit les particularités de la dernière traduction en euskara, publiée en 2015.

Abstract

In honor of the recent celebration of the 150th anniversary of the publication of *Alice in Wonderland*, the author reviews the history of the work and its reception, and examines the characteristics that made it a canonic work. Next there is a bibliographical review of the primary comparative studies on translations of Lewis Carroll's work into other languages of the world. The inclusion of an apocryphal chapter in one of the Spanish versions is presented as an example of one of the many *manipulations* carried out in the translation of this book. Finally, the versions of the work in the Basque language are listed, and the characteristics of the most recent translation into Basque, which was published in 2015, are described in detail.